

Zeresana emango du



Boltsa bai, baina dirurik ez

Donostiako auzoetako jaiak hastear dira. Baina, auzo batzuetan diru arazoak izan ditzakete, onartutako dirulaguntzen erdia ez baitute jaso. Udalak iaz ordutegiak ez errespetatzeagatik isunak jarri zituen, eta hori dela eta, 12 jai batzorderi ez diete hitzartutako dirua eman.

Aitziber Iartza

Donostiako Kultur eta Turismo Ekintzeak ez du Donostiako hainbat auzotako jai batzordeei bideratu beharreko dirulaguntzen erdia banatu. Kasu guztietan arrazoia bera da. Iaz batzorde hauei espedientea zabaldu zieten Udalak ezarritako ordutegia ez errespetatzeagatik. Horregatik isuna jaso duten 12 jai batzordeei (Altza, Intxaurren, Martute...) Udalak ez die dirulaguntzen bigarren zatia eman. Hala, hitzartutako 12 milioi pezetatik (72.121 euro) 5, 6 milioi pezeta (33.656 euro) oraindik ez dituzte jaso.

Jai batzordeak kexu dira, Udalaren jarrera dela medio. Guztiak kexu dira, zigorrak bidegabeak direla uste baitute. "Udalak ezarritako ordutegiek ez dute zentzurik, horiek ez dira festetako ordutegiak", azaldu digu Mikel Altuna Igeldoko jai batzordeko kideak.

Gainera, isunak dirulaguntzak baino askoz ere txikiagoak direla nabarmendu dute guztiek, eta dirulaguntzen erdia ez ematea konponbidea ez dela nabarmendu dute. "Guri 600.000 pezetatik gora zor digate, eta ezarri ziguten isuna, berriz, 20.000 pezetakoa da", azaldu digu Pedro Mari Egizabal Sagueseko jai batzordeko kideak. Gauza bera esan digu Unax Seges Herrerako jaietako antolatzaileak.

Udaleko zinegotzi arduradun Ernesto Gascok, berriz, gaiari buruz hitz egitea saihestu du. Esandako gauza bakarra izan da oraindik ere zigorren inguruko helegite guztiak argitu gabe daudela, eta beraz, ez duela gaiari buruzko zehaztasun gehiago emango. Hala ere, beste ideia bat gaineratu nahi izan du: iaz jarritako isunak "sinbolikoak" izan zirela dio, baina aurreantzean ez direla halakoak izango ziurtatu du.

Zenbait ekimen

Dirulaguntzen zatia jaso ez izanak arazoak eragin ditu. Igeldoko Mikel Altunak azaldu digunez, "Herri Kontseituari dirua eskatu behar izan diogu zorrei aurre egiteko, eta hurrengo urterako neurriak hartu beharko ditugu". Unax Seges ere zentzu berean mintzatu da. "Azken urteetan eginiko lanaren ondorioz une honetan on-

gi gaude, baina dirulaguntzak bideratzen ez badira, lehengora itzultzeko arriskuan gaude".

Arazoak auzo askotan izango dira, eta hori dela eta, aste honetan bertan jai batzordeek bilera egin dute. Idatziak igorriko dizkiote alkateari eta zinegotzi arduradunari, eta egoerari aterabidea emateko neurriak bilatuko dituzte. "Denok batera jo behar dugu. Banatu nahi gaituzte, baina eraginkorra guztiok batera ekitea da", adierazi digu Pedro Mari Egizabalek.

Kale kantoitik

1997ko akordio famatua

1997an Udalak eta jai batzordeek akordioa lortu zuten festen inguruko arazuei buruz. Baina, agiria hori dagoen arren, hartzimena ez zen sinatu eta ondorioz, ez dute indarrean jarri. Jai batzordeek argi dute akordio hori mar txan jarzea izan daitekeela gatazkari aterabidea emateko modua. "Agiri horretan bi aldeek hitzartutako ordutegiak eta bestelako arauak azaltzen dira, baina hori ezarri ez denez, arazoak sortu dira". azaldu digu Unax Seges Herrerako jai batzordeko kideak. Mikel Altuna Igeldoko jai batzordeko kidea ere akordioaren alde agertu da. "Akordio hartan, gainera, Igeldoko eta Anorgako berezitasunak kontuan hartzen ziren, eta gu horren alde gaude".



**Jai batzordeek
Udalak auzian duen
jarrera salatzen dute**